

KULTURA URKO ABESLARIARI ELKARRIZKETA · GEHIGARRIA ANTONIO BERASALUZERI ELKARRIZKETA  
KIROLA SAN PEDROA TXIRRINDULARI IGOERAKO IRABAZLEAK

EL GOIBAR KO A S T E K A R I A · 2004ko urriaren 22a/XII. urtea/505. zkia

# BARREREN

ASTEKARIA



AZAROAK 14

## Behobia-Donostiarako prestatzen

# GREMIOEN GIDA

## AROSZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### ETXEKIT

Erreformak-proiektuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### IMAR

Erreformak  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### LODOSO

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
☎ 943 74 03 96

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
☎ 943 74 17 61  
☎ 689 04 92 06

### ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia  
☎ 943 74 28 80

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62  
☎ 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
☎ 943 74 05 30

## PINTURAK

### BIOK DEKORAZIOA S.L.

Santa Klara, 26 behe ezkerria  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

## ELEKTRIZITATEA

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### JOSEBA

Pedro Muguruza, 29  
☎ 943 74 09 02  
☎ 659 93 49 64

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
☎ 943 74 29 87  
☎ 679 19 77 47

### E. ARANDIA

Urasandi, 17  
☎ 605 70 52 04

## ISOLAMENDUAK

### GLAS CONTROL S.L.

Isolamenduak  
Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



### Gora eta gora

Autoaren depositoa gasolioz edo gasolinaz bete behar dugunok haserrealdi izugarriak izaten ditugu gasolindegira hurreratzan garen bakoitzean. ‘Gaur ere bai!’- pentsatzen dugu gure baitan.- ‘Bai, tamalez, gaur, herenegun baino zentimo batzuk garestiago dago gasolina. Hau da hau errealitate petrala!’ Orain dela oso gutxira arte, -bizpahiru hilabete eskas- 0,68 zentimo ordaintzen nuen nik gasoleo litro bakoitzeko. Orain, beriz, 0,83, edo, auskalo zenbat! Prezioari ez diot begiratu ere nahi izaten. Zertarako!! Alfer-alferrik da haserratea eta gure lepotik dirutza egiten dihardutenekin gogoratzea depositoa bete behar dudan bakoitzean. Diotenez, petrolioaren goradakak ez ei du toperik. Marka guztiak hautsi behar dituela esaten dute jakintsuek. Hori horrela bada, Brent upelaren igoera geraezina Guinness errekor handien liburuan agertuko da laster.

Adituek esan dute Nigeriako greba orokorrak, Venezuelak nazioarteko petrolio-konpainiei ezarritako zerga %16 igotzeak eta Mexikoko Golkoko eta Irakeko ezegonkortasunak eragin dutela igoera. Gainera, Brent upelaren prezioak ez omen du behera egingo, ez epe motzean, ez inongo epetan. Horregatik, igoerak sorraraziko dituen galerak nolabait konpentsatzearren, hainbat produkturen prezioak igo egingo dira halabeharrez. Dena garestiago aurrerantzean. Eta gure soldadak eta pentsioak? Horiek ere igo egingo al dira? Ja!

Ainhoa Lodoso



### Sukaldarien txanda

Ez da nahi bezain lasaialdi luzea izan. Marxoaren 11an eta 14an Madrilén izan ziren aldaketen ondorioz, begirada guztiak Ekialde Hurbilera eta Afrikako iparrera bideratu zituzten. Boterea bidean galdu zuen alderdia gehiago saiatu da, era berean, boterea lapurtu omen zion alderdiarekin mutur-joka denbora pasatzen.

Baina gauza gehienek bezala, ziklo horrek ere bereak eman ditu. Ikastolak eta hezkuntza eredu, EITB, Ertzantza eta, oro har, gure nortasuna definitzen duen edozein kolektibo kriminalizatu ostean, oraingoan hain ezagun ditugun sukaldari ospetsu hauei tokatu zaie erasogune izatea.

Txantajearen dirua (zerga iraultzailea terminua ez dut ulertu nahi) ordaindu duten ala ez, eztabaida horretan sartu gabe, beraien intimitatea, gizatasun maila eta duintasuna bortxatzen datoz. Oraingo honetan ere intransijentziaren aldetik. Intransijentziaren beste aldetik. Txantajearen aurrean zein jokabide izan behar den, nork bere eritzia izango du. Baina aurrerantzean Subijana, Argiñano, Arzak eta Berasategi jaunekin bezala jokatu behar badute, atzera ere begira dezatela; Ruperez diputatu ohiari eta, azken finean, ETAK bahituta zuenean bere askatasuna ordaindu zuen gobernuaren arduradunari ere luzatu beharko bailiekete epailearen aurrera joateko gonbidapena.

Baina istorio zatar eta zikinenetatik ere badago gauza onik ateratzerik; jadanik jakin badaki, joateko aukera duenak behintzat, ez duela sekula santan gehiago Iturgaiz jaunarekin topo egingo sukaldarion jatetxeetan. Lasaitasun ederra beraientzat ere!

Gotzon Arrieta

asteko notiziario

Kexak.....	5
motZ MotZ.....	8
gehigarria.....	13
kiROLak.....	20
aGenda.....	24

Atal hauek ez dira BARRÉNen editorialetan. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, beriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

## MERKATUA ETA ALKATEA

Ez dot uste Elgoibarren sekula hartu danik horrenbeste zeresan sortu daban erabakirik. Merkaturia beti egin izan da herriaren erdian, baina orain agintariekin erabaki dabe kanpo aldera eramatea, industrialde triste bati kolorea emateko edo. Ez dakit zeinek hartu daban erabakia, alkateak ala Gobernu Batzordeak, baina berdin jata. Kontua da herriaren nahiari bizkarra eman diotela, ez dabela aintzat hartu kaleko pentsakera. Eta nik, futboleko arbitroa banintz, txartel gorria aterako nioke alkateari.

Trafiko arazo larria daukagu bai erdigunean, baita auzoetan ere. Asmo ederra da alde zaharreko kaleak peatonalizatzea, trafikoa hortik ateratzea. Baina horretarako egueneko merkaturia kendu behar bada, ez dakit ba gaitza baino txarragoa ez ote dan erremedioa. Merkaturia Plazatik kenduta, trafiko arazoak berdin-berdin sufrutuko ditugu. Plaza handian zein txikian, merkatuak herriaren erdialdean egin behar du, halaxe izan da beti, eta halaxe da bai Parisen eta bai Thailandian. "Merkaturia bizitza da" dio telebistan ikusten dogun Eusko Jaurilaritzaren iragarki batek. Elgoibarren eguenean plaza garbi egongo da, baina bizi askoz gutxiagorekin. Ederra aurrerabidea!

Herriari kasurik egin gabe erabakiak hartzea, kontu txarra. Historian lehen emakume alkatea genuela-eta, banaukan gauzak hobetuko zirenaren esperantzarik. Hala jokaturia, nere botorik behintzat ez dezala espero.

Aitor Zabaleta Arrieta - 15.381.334

## ELGOIBARKO IRITZI PUBLIKOARI

Astero-astero Elgoibarko azokara etortzen garen merkatariok errespetu eta maitasun handia diogu herriari (batzuk bertan bizi dira, besteak ingurukoak dira, eta beste batzuk hainbeste urte daramatzate lan honetan, era berean miresten dituztela herritarrek). Elgoibartarrek azken manifestaldian eskaini ziguten babesarekin, mirespena elkarrenganako delia uste dugu, eta lerro hauen bidez beren babesa erakutsi ziguten guztiak eskertu nahi ditugu, baita ere, Txankakua Merkatari Elkarte eta Einbiou Herri Plataforma gure arazoa ulertzeagatik.

Udalak, bestalde, badirudi ez duela modu honetan pentsatzen, eta azoka lekuz aldatzearen aldeko postura mantentzen du. Ez ditugu bere arrazoiak ulertzen, eta erabaki honen atzean ezkutuko interesen bat dagoela pentsarazten digu. Ezin dugu onartu gure lanpostua hain begirune gutxiarekin tratatzea. Leku aldaketa onartzeak, gure lanpostua galtzea ekarriko luke (Sigmarako sarbideak ez dira egokiak, urrun dago eta erosleak ez lirateke etorriko...)

Zergatik ez dago arazoa konpontzeko borondaterik? Zergatik daude politikoak ongiaren eta okerraren ginetik, eta ez dute herriaren iritzia entzuten? Denok elkarrekin bizi eta elkar errespetatu behar dugu, ez inposatu. Dena dela, legegaldia ez dira betirako, eta herriari kontuan izango ditu bakoitzaren ekintzak.

Zuen babesa eskatzen jarraitzen dugu, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu erakutsitako jarreragatik.

Eskerrak asko,  
Trasladorik ez!

Raul Argai - Azokako Merkatarien izenean

# Urruzunoren begi ezkutua

## Uretan



Uretan murgiltzen naiz. Lehenengo sentsazioa gortu egiten naizela da, isolatu, beste mundu batean barneratu banintz bezala. Ondoren, urak gorputz osoan zehar eragiten didan presio atsegingarria sentitzen dut, puntu guztietan presio berbera, oihal handi eta bigun batez gorputza estali eta ehunka besok estutuko banindute bezala. Begiak ireki eta uhinek moldatutako forma leunez biribilduta ikusten ditut gainontzeko gorputzak. Mugitzen hasi eta arinagoa naizela sentitzen dut. Ez dio axola kanpokaldean daukadan pisua, uretan arina naiz, arrain bat lez, kiloen esanahia uhinekin ezabatuz. Horrela egon nahiko nuke betirako, murgildurik, isolaturik, libre... Gauza batek soilik hondatzen du guztia: arnasteko beharrak noizbait uretatik irteten behar naizela gogorarazten dit. Ariketa hau behin eta berriz errepikatzen dut, urpean mugituz, igeri eginez, gorputzeko giharre guztiei eraginez, harik eta indarrak agortzen zaizkidan arte. Uretatik irteten naiz orduan, gorputz astun eta baldarra bi hanken gainean mugituz, igerilekura berriz noiz itzuliko zain.

Iñigo Otaño

## ASTEKARIA

# BARREN

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com


Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILERAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



DANOBAT



GOITI




ESTARTA

 KEXAK

◆ Emakume batek esan digunez, **Leku Ederreko parkean burdin arriskutsu batzuk daude lurreen**: “Denbora asko darama Leku Ederreko barandilak puskatuta, eta lurreen burdin batzuk daude oso modu arriskutsuan. Hilabeteak daramatza honela. Ume asko ibiltzen da parke honetan jolasten, patinetean edo bizikletan, eta egunen baten ezbeharren bat gertatuko da. Mesedez, ezer larririk gertatu aurretik, konpondu dezatela”.

◆ Gabriel Krutzelaegi kalean bizi den emakume batek esan digunez, **trenbidetik sasiak beraien kaleraino iristen dira**: “Lehen auzokide batek baratza zeukan ingurune honetan, eta berak mozten zituen trenbide ondoan hazten ziren sasiak. Orain ordea, inork ez ditu mozten. Batzutan, fabore bezala obretako langileei eskatzen diegu, eta beraiek mozten dituzte. Azkenaldia oso luze daude sasiak, eta autoren bat pasatzen denean, beraien kontra jarri behar izaten dugu, autoari lekua uzteko. Noizean behin sasi horiek moztea eskertuko genuke”.

◆ Herritar batek esan digunez, **asteazken zehar ezin izaten da Errosario, San Bartolome eta San Frantzisko kaleetan ibili**: “Joan zen ostegunean ordu erdi baino gehiago behar izan nuen umearen aukiarekin Plaza Handitik King-Kong ingururaino iristeko. Auto mordo bat ibiltzen da kale horietan, eta askok edozein lekutan aparkatzen dute. Autoak bertatik pasatu beharra uler daiteke, baina ez dezatela utzi edozein tokitan aparkatzen, oinezkoei traba handia egiten diete-eta”.


 TXALOAK

◆ Herritar batek **Errosario kaleko Jai Batzordea txalotu nahi du**: “Aurten Jai Batzorde berria ibili da Errosario jaietako antolatzaileran lanetan, eta oso ondo egin dute beren lana. Giro oso onean pasatu ditugu jaiak, ekitaldi politak izan ditugu, eta aurrerantzean ere berdin jarraitzea espero dugu”.

◆ Eibarko mendizale batek **Pilar Ikastetxe ikasle eta irakasleek Arratera egindako txangoan izan zuten jarrera txalotu nahi du**: “Joan zen irailaren 29an Arratera egin zuten txangoan, beraien zabor guztiak jaso zituzten. Arrateko kanpa guztia garbi-garbi utzi zuten. Txalotzeko moduko jarrera izan zuten, eta guztiok gauza bera egin beharko genuke”.

## EIBARKO EZKONTZA AZOKA 2004

**NON:** ARMERIA ESKOLA  
(Kantoi gasolindegia parean)

**NOIZ:** URRIAK 23 eta 24

Larunbatean  
17etatik - 21era  
Igandean  
11etatik - 14ra  
17etatik - 21era



- ☞ Profesionalen erakusketa deskontuekin
- ☞ Degustazioak
- ☞ Desfilea
- ☞ Opari ederren zozketa
- ☞ Areto dantza
- ☞ Lirika aktuzioak

\* *Sarrera dohan*

# BEHOBIA DONOSTIA

*Behobia-Donostia Herri Lasterketa kirol probarik entzutetsuen bilakatu da gure inguruan azken urteotan. Urtero antolakuntzak onartzen duen gehieneko parte hartzaile kopurua (11.200 lagun) txiki geratzen da, eta hori da probak duen arrakastaren adierazle argiena. Zer ote dauka lasterketa honek horrenbeste jende 20 kilometro antxintxika egitera animatzeko? Galdera honi erantzuna topatu nahian Behobia-Donostian parte hartuko duten hiru elgoibartarrek berba egin dugu. Izan ere, elgoibartarren artean arrakasta itzela du Behobia-Donostiak. Iaz 45 herritarrek parte hartu zuten bertan eta irailetik aurrera San Lorentzoko bidean antxintxika ibiltzen den jende kopurua ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko.*

**B**ere hastapenetatik Donostiako Fortuna Kirol Elkartek antolatu du lasterketa. 1919an izan zen lehenengoa eta elgoibartar bat izan zen protagonista nagusia, Juan Mugerzak irabazi baitzuen estreinako proba. Lehen garai haietan etenaldi ugari izan zituen lasterketak, eta azaroaren 14an ospatuko dena, 40. edizioa izango da. 1979an hasitako etenaldirik gabeko aroko 26. proba da, hortaz. Egun Europa mailan bere mailako bosgarren probarik garrantzitsuena da. Ibilbidearen ezaugarri dagokionez, ordeka eta igoera txikiak tartekatzen ditu, Gaintxurizketako gaina (84 m.) delarik zailtasunik nabarmenena.



## Xabier Bergaretxe

Modu bitxian iritsi zen Xabier Bergaretxe (31 urte) atletismora. Bost urte inguruan rallyen munduan kopilotu gisa ibili ostean, zerbait berria egiteko gogo sartu eta korrika egiten hasi zen duela hiru urte eta erdi.

Behobia-Donostian bi aldiz bakarrik parte hartu du, baina oso denbora onak lortu ditu: 1:16:30 estreinako urtean eta 1:17:11 bigarren urtean. Jendeak lasterketa honi ematen dion garrantzia ez

zuela ulertzen aitortzen du Xabierrek, “azken finean beste erdi maratoni bat gehiago da, baina zergatik parte hartzen dute 11.000 lagunek bertan, antzerako lasterketetan 500 edo 800 lagunek hartzen duten bitartean? Probatu ostean, jende askok jai bat moduan hartzen duela ohartu naiz. Moeta guztietako korrikalariak ikusten dira: oso onak, moztortuta ateratzen direnak eta baita korrika oso gutxitan aritzen direla igartzen zaienak ere. Ez dago aniztasun hau ematen den beste lasterketarik. Zergatik azaltzen asmatzen ez dudan arren, geu ere erakarri gaitu. Helbururik eduki ezean gehiago kostatzen dela diote eta horregatik izango da agian”.

Horabehera askoko lasterketa izatean datza Behobiaren zailtasun nagusia Xabierren iritziz, eta gakoa, berriz, suabe hastean omen dago “Hasieratik egurra ematen hasiz gero, eta Gaintxurizketan gora ere

berdin jarraitu, bukaera luze egiten da. Esperientziak erakutsi dit gero badagoela non errekueratu, Pasaiaiko portura edo Mirakruz gainetik helmugara indar edo freskotasan puntu batekin iristeko”.

Xabier urte guztian aritzen da korrika, urtarrietik uztaiera bitartean mendiko lasterketetan (Aizkorriko maratonia, Zallakoa...) eta irailetik aurrera asfaltoan. Astean 5 edo 6 egunetan entrenatzen du. “Irailen base pixka bat hartzen dugu, ordubete inguruko saioak eginez. Urriar eritimoa gogortu eta astean behin serieak eta iraupen luzeagoko (1:15-1:30) entrenamenduak tartekatzen ditugu. Urri erditik karrera eguna baino astebe lehenagora arteko entrenamenduak izaten dira gogorrenak”. Aurten ere bere onena ematen saiatuko da.



**“Hasieratik egurra ematen hasiz gero, bukaera luze egiten da”**

**Xabier Bergaretxe**

# prestatzen



## Maider Lehr

Maider Lehr (26 urte) elgoibartarrak iaz probatu zuen lehen aldiz Behobia-Donostia lasterketa eta 6.228. postuan amaitu zuen 1:45:53 denborarekin. "Asko gustatu zitzaidan eta pentsatzen nuena baino politagoa izan zen. Gainera, egun oso ona eduki nuen eta ez nuen momentu txar bat ere pasa. Helmugara ere gehiegi nekatu gabe iritsi nintzen".

Zerbait egitearren hasi zen Maider antxintxika. "Aurrez aerobikean ibili izan nintzen, baina korrika orain dela urte eta erdi hasi nintzen. Astero bizpahiru egunetan ateratzen naiz eta ordu bat edo ordu eta erdiko saioak egiten ditut. Behobia-Donostiarako ez nintzen modu berezian prestatu. Lasterketa amaitzera atera nintzen eta erlojurik ere ez nuen soinean eramane. Are gehiago, ibilbidea ezagutu gabe egin nuen lasterka".

Lasterketan bizi den giro ona dela azpimarragarriena azaldu digu. "Jende asko ateratzen da ongi pasatzera, markarik egiteko batere asmorik gabe eta hauek ematen diote juerga giro berezi hori probari. Honez gain, jende mordoa egoten da bide bazterretan animuak ematen eta entrenigarriagoa egiten da. Diego Garcíaren oroimenezko Azpeitia Azkoitia erdi maratoian ere parte hartu naban, baina ez dago konparaterik, ez zitzaidan horrenbeste gustatu. 1.000 pertsona bakarrik atera ginen han eta askoz serioago hartzen du jendeak, ia denak baitoaz beren marka hobetzera". Aurten iazkoa hobetzen saiatuko den arren, entrenamenduak aldatu edo gehiago saiatzeko asmorik ez duela azaldu digu.



**"Jende asko ateratzen da ongi pasatzera, markarik egiteko asmorik gabe"**

**Maider Lehr**

## Edu Alonso

Edu Alonsok betidanik egin izan du kirola, baina korrika duela urte bete eskas hasi zen. "Iaz Behobia-Donostian parte hartu zuen eta momentuz korritu duen lasterketa bakarra izan da. Denbora nahiko diskretua egin nuen (1:49:08) baina aurten bigarrez joateko asmoa dut eta hobetzea gustatuko litzaidake". Lasterketa eguna baino hiru hilabete lehenago hasi zen entrenamenduekin, "asteen bi edo hiru aldiz ateratzen naiz korrika egitera. Hasieran 40-50 minutu (8 km.) aritzen nintzen eta lasterketa eguna hurbiltzen joan ahala, entrenamenduetako denbora luzatzen joan naiz fondoak lantzeko. Orain ordu eta laudenerainoko (12 km.) saioak egiten ditut. Batzuei egun batzuk lehenago 20 kilometro korrika eginez probatzea gustatzen zaie, baina ni ez naiz horren aldekoa. Gehienez 15 kilometro egiten ditut". Iaz lagunartean egin zuela lasterketa azaldu digu, "lau lagun atera ginen eta lehen aldia zenez, bukatzea bakarrik erronka bat zen guretzat. Ez genekien amaituko ote genuen ere, baina ongi iritsi ginen. Aurten iazko denbora hobetzera joango gara, baina ezin bada, amaitzearekin ere konformatuko gara. Eduki genuen piketxoa nork lehenago bukatu, baina azkenean denok antzera xamar helmugaratu ginen. Egun polita izan zen eta arratsaldea ere Donostian pasa genuen Alde Zaharrean tragoxka eta pintxo batzuk hartuz". Lasterkarien arteko giroa ere asko gustatu zitzaiola aitortu digu, "irteeran dagoen giroa aparta da. Elkar ezagutu ez arren, bata besteari animuak ematen dizkiogu korrikalariok. Gogorrena, berriz, helmugarako bi kilometroren faltan dagoen Mirakruzeko gaina egin zitzaidan. Berez ez da oso luzea, baina amaigabea egin zitzaidalda gogoan dut".



**"Elkar ezagutu ez arren, bata besteari animoak ematen dizkiogu"**

**Edu Alonso**

## Ostegunetako azoka Sigmara aldatzearen kontrako hiru mozio aurkeztu dira Udalean

Aurkeztutako mozioetan Udalari hartutako erabakia aldatu dezan eskatzen diote

**E**lgoibarko Udalak ostegunetako azoka sigmara eramateko hartutako erabakiak polemika handia sortu du herrian.

Honen aurrean, hiru mozio desberdin aurkeztuko dizkiote Udalari datorren udal plenoan eztabaidatu eta onartzeko asmoz. Alde batetik PSE-EE, PP eta EB alderdi politikoei aurkeztu dute mozioa. Bertan bi eskaera egiten dituzte: azoka Sigmara eramateko erabakia aldatu eta Plaza Handian egiten uztea, eta bestetik, beharrezkoa balitz, merkataritza talde batekin leku berri bat adostea.

Ezker Batua alderdiak, bestalde, bere kontura beste mozio bat aurkeztu du, eta Einbiou Herri Plataformak bere mozio propioa aurkeztuko du udal plenoan, Unai Zulaika Ezker Batuako zinegotziaren bitartez.

Bi mozio hauetan hiru eskaera egiten dira: Udalak hartutako erabakia bertan behera uztea, azokako ordezkari eta



herriko eragile sozialen artean, herritarren intereserako irtenbide bat bilatzea, eta udal ordezkariak gainontzeko alderdi politikoei informazioa ematea.

### Arrazoiak

Hiru mozio hauek aurkezteko arrazoietan bat datoz alderdi guztiak, eta baita Einbioukoak ere. Beraien mozioetan

azaltzen denez, “40 laguneko lanpostuak kolokan daude, herriari sekulako bizitasuna ematen dio azokak, eta erabaki honek herriko merkataritza, ostalaritza eta beste hainbat zerbitzuzentzako ondorio negatiboak ekarriko ditu, herritarren iritziak ez dira kontuan hartu, eta nahiz eta azoka lekuz aldatu, herrian trafikoa arazo handiak daude”.

## Ostegunetako azoka jarri nahi den Sigmako orubeak estalkia izango du

Astlehenean Gipuzkoako Saltzaile Ibiltarien ordezkariekin bilduko da Udala

**U**dalak ostegunetako azoka Sigmako orubera aldatzeko erabakiarekin aurrera jarraitzen du eta atzo, osteguna, prentsaurrekoa eskaini zuten gauzak gehiago argitze aldera. Marivi Agirregomezkorta alkateak, Miguel Angel Mujika, alkateordea eta Hirigintza zinegotzia; Igor Palomino, Kultura zinegotzia eta Nekane Ortuoste, EA alderdiko zinegotzia izan ziren bertan. Marivi Agirregomezkorta alkateak aurrez jakitera emandako arrazoiak berriz azaldu eta hartutako erabakia zuzenena izan zela defendatu zuen, baina berrikuntza gisa, azoka jartzea aurreikusten den

Sigmako orubeak estalki bat izango duela azaldu zuen. “Oraindik proiektu hutsa da eta ez dakigu noizko egongo den amaituta, ezta zer ezaugarri izango dituen ere, baina gure nahia maiatzerako amaituta egotea



*Udalak aurkeztutako proposamenaren irudi birtuala.*

izango litzateke. Ostegunetako azoka bertan egiteaz gain, beste hainbat gauzatarako gune bilakatuko litzateke. Hortaz, saltzaileek bertara joateko prest egon ez arren, aurrera jarraituko genuke”.

Proiektuaren inguruan informazio gehiago izan ahala, publiko egingo zutela gaineratu zuen.

Hurrengo pausoa, berriz, Gipuzkoako Saltzaile Ibiltarien ordezkariekin datorren astlehenean biltzea izango dela adierazi zuen alkateak, proiektu honi buruz berba egiteko. Honez gain, azken bi hilabeteetan erabaki honek herrian sorrarazi dituen eztabaida, zurrumurru eta manifestazioen gainean duen ikuspuntua eman zuen alkateak.



## 54 haur eta gaztetxok eman dute izena Elgoibarko Izarrak antolatutako "Euskara Errefortzuak" programan

Elgoibarko Izarrak "Euskara Errefortzuak" programa jarri du martxan euskaraz ez dakiten edo euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten Elgoibarko haur eta gaztetxoentzat. Saioak urrian hasi eta maiatza bitartean izango dira. Programa honen bidez, haur eta gaztetxo hauek ikastetxetik kanpo euskara ikasteko, eta euskaraz hitz

egiteko erraztasuna lortzeko aukera izango dute.

Programa hau 2003-2004 ikasturtean jarri zen martxan Elgoibarren "esperientzia pilotu" moduan. Aurtengoan 54 haur eta gaztetxok eman dute izena. 7 talde osatu dira guztira: euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten 39 ikasle eta euskaraz ez dakiten 15.



## "Elgoibartarren esanetan" liburua aurkeztu zuten urriaren 14an

"Elgoibartarren Esanetan" izeneko liburua aurkeztu zuten Kultur Etxeko sotoan, joan zen urriaren 14an. Elgoibarko alkatea, Marivi Aguirregomezkorta; Kultura batzordeburua, Igor Palomino; eta liburuaren egilea, Jabi Leon kazetaria izan ziren ekitaldian. Egilearen helburua, Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzea izan da, eta horretarako, 80 urtetik gorako 21 lagun elkarrizketatu ditu. "Elgoibartarren Esanetan" Elgoibarko Udalak argitaratutako azterlana da, eta estreinakoz gure herriko euskara jasota geratu da



bertan. Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrak egokitu ditu aipu horiek guztiak gure herriko hizkerara.

Interesatuek Pitxintxu, Gorostiza edo Kultur Etxean erosi dezakete liburua 6 euroren truke.

## Aiora Azagirre izango da Atxutxiamaikako arduradun berria



Aiora Azagirre mallabiarrak beteko du Nerea Oñederraren lekua Atxutxiamai Aisialdi taldean. Joan zen astelehenean, urriaren 18an, hasi zen Aiora lanean. Aurrerantzean, beraz, bera izango da Atxutxiamai Aisialdi Taldeko arduraduna. Nerea Oñederrari, bestalde, suerterik onena opa diogu bere lan berrian.

## Galiza Etxeak zuzendaritza berria dauka

Joan zen urriaren 17an egin zuten bileran Galiza Kultur Etxeko zuzendaritza berria aukeratu zuten. Ondorengoak dira zuzendaritza berriko kideak: Fernando Suarez (presidentea), Manuel Fernandez (presidenteordea), Manuel Amaro (idazkaria), Rikardo Urrutia (diruzaina), Antoliano Leon (erosketa arduraduna), Ovidio Campello (Kultura eta harreman publikoetarako arduraduna), Celso Romero (liburutegi arduraduna), Dionisio Miguel, Jose Fernandez eta Patxi Iraola (bozeramaileak).

## Errosario jaietako zozketa

Errosario jaietan egindako zozketako zenbaki irabazleak ondorengoak dira:

- 1. saria: 0945**  
(erreserbakoa 0479), 150 euro
- 2. saria: 0441**  
(erreserbakoa 0566), 100 euro
- 3. saria: 0210**  
(erreserbakoa 1046), 75 euro

Irabazleek erosketa txeketan jasoko dute saria, eta Errosario kaleko dendetan gastatu beharko dute.

**Espainiako Barne Ministerioak puntu bidezko karnetarekin urtean  
6.000 gida baimen erretiratuko direla aurreikusten du**

## **BA AL DAUKAZU KARNETA GALTZEKO BELDURRIK?**



### **JAIONE BEGIRISTAIN**

**36 urte, klinika laguntzailea**

Ez, nik arauak errespetatu egiten ditut. Errepidean asko ibiltzen naiz, eta astakeria asko ikusten dira. Metodo ona iruditzen zait, jendeak kontu handiagoz hartuko du autoa.

### **ANDRES GABILONDO**

**42 urte, komertziala**

Bai, komertziala naiz eta ordu asko pasatzen ditut autoan. Neurri ona da, baina gidari profesional eta arrunten arteko bereizketaren bat egin beharko litzateke.



### **AINHOA ETURA**

**31 urte, gizarte laguntzailea**

Bai, edozein momentutan hutsegiteren bat egiten harrapatu gaitzaketelako. Hala ere, neurri egokia iruditzen zait, batez ere, alkoholaren ondorioz istripu asko gertatzen direlako.

### **VALENTIN ROMERA**

**53 urte, pintorea**

Ez, orokorrean errespetatzen ditut trafiko arauak. Ez dakit metodo honek zein emaitza emango dituen, baina neurri egokia dela uste dut, jendeak kontu handiagoz gidatuko du.



### **EDURNE GABILONDO**

**41 urte, inbubiliariako agentea**

Ez, oso gutxi erabiltzen baitut autoa. Azkar gidatzen duenak, berdin jarraituko du. Isunekin ere jende askok ez ditu arauak errespetatzen. Ez dakit metodo ona izango den!

### **MIKEL RIVAS**

**36 urte, komertziala**

Bai, egun osoa autoan nabil, eta hutsegiteren bat egiteko aukera handia daukat. Kontuz ibili beharko naiz. Hala ere, neurri ona iruditzen zait, eta istripuak gutxituko direla uste dut.





umeentzako jantziak

**Punta puntako markak**

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

DKNY  
KENZO  
TIMBERLAND  
ELLE  
IKKS  
NOLITA



**PINTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 - 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## Erdi Mailako Zikloetarako sarrera proba prestatzeko ikasketak eskainiko ditu Elgoibarko Institutuak

Escola Graduatua ez duten ikasleentzat edo EDBH gainditu ez dutenentzat, Erdi Mailako Zikloetarako sarrera proba prestatzeko ikasketak eskainiko ditu Elgoibarko BH Institutuak. Arrasate, Usurbil eta Bilboko institutuekin batera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Elgoibarko Institutuari egokitu dio ikasketa hauek eskaintzeko lana. Ikasketa hauek burutu ahal izateko 21 urte izatea, edo bi urteko lan esperientzia eskatzen da.

Ikasketen aurkezpena urriaren amaieran egingo da, eta eskolak azaroaren hasieran hasiko dira. 360 orduko ikasketak izango dira, eta besteak beste, soziolinguistika eta zientzia

alorrak landuko dira. Erdi Mailako Zikloetarako sarrera proba maiatzean egingo da. Martxan jartzeko, gutxienez 10 ikaslek eman beharko dute izena, eta gehienez 20 ikasle izango dira.



## Txandakako Ingeniaritzako 9. Promozioak ikasturte berriari ekin dio

Joan zen urriaren 18an, inauguratu zen Txandakako Ingeniaritzako 1. eta 2. kurtsoko ikasleentzat (3. kurtsokoak atzerrian daude praktiketari). Aurtengoa 9. promozioa izango da.

Ekitaldian Fagor Arrasateko Giza Baliabideetako arduradunak, Jose Mari Ulaziak, parte hartu zuen, enpresek ikasleei lanerako orduan eskatzen dizkieten balioak adieraziaz eta enpresa ikuspegia azalduz. Honekin batera, ikasle berriek bigarren kurtsoko ikaskideen aholku eta iradokizunak entzun ahal izan zituzten. Azkenik, ikasketak bukatu berri dituen

Borja Aristik Ingeniaritzako ikasle bezala izandako esperientziaren balorazioa egin zuen.



## 400 ikasle inguruk hartuko dute parte Eskola Kirola kanpainan

Joan zen larunbatean, urriaren 16an, hasi zen 2004-2005 ikasturteko Eskola Kirola kanpaina. Guztira, 400 ikasle inguru arituko dira larunbat goizetan futbola, saskibaloia, tenisa, eskubaloia, igeriketa edota atletismoa praktikatzeko. Pilar, Ikastola, Herri Eskola, Herri Institutua eta Mendaroko San Jose Ikastolako 14 urtera arteko ikasleek hartuko dute parte. Alebin eta infantil mailako talde onenek, ikasturte bukaeran, hau da, maiatza aldera, G i p u z k o a k o Txapelketa jokatzeko aukera izango dute.



## Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren ikuskizunarekin bukatu zen Kiribilka programa

Joan zen urriaren 15ean bukatu zen Elgoibarko Izarrak martxan jarritako Kiribilka programa. Poxpolo, Mokolo pailazoak eta konpainia ikuskizuna izan zen programari amaiera eman zion ekitaldia. 180 haur eta guraso inguru bildu ziren Herriko Antzokian antzerkia ikusteko, eta esan digutenez, ordubeteko saio oso entretenigarria izan zen.

Martxoan ekin zion Elgoibarko Izarrak Kiribilka programari. Guztira 12 saio eskaini dituzte eta programaren arduradunak eskerrak eman nahi dizkie Kiribilkako saioetan parte hartu duten haur eta guraso guztiei.



## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

Urriak 23, 2. Jardunaldia

#### ESKUBALOIA, Kiroldegian

- **Infantil mutilak** ■
- 11:40 Ikastola A - BHI B
- 12:30 Pilar A - BHI A
- **Infantil neskek** ■
- 09:10 BHI B - Pilar B
- 10:00 BHI A - Ikastola B
- 10:50 Ikastola A - Pilar A

#### MINISASKIBALOIA, Herri Eskolan

- **Alebin mutilak** ■
- 10:30 Pilar A - Ikastola A
- 11:15 Herri Eskola B - Mendaro 5-6
- 12:00 Ikastola B - Herri Eskola A
- **Alebin neskek** ■
- 09:00 Ikastola B - Herri Eskola
- 09:45 Ikastola A - Pilar A

#### FUTBITOIA, Mintxetan

- **Benjaminak** ■
- 09:10 Ikastola D - Ikastola E
- 09:45 Pilar 4 - Ikastola C
- 10:20 Herri Eskola B - Herri Eskola C
- 10:55 Mendaro 3 - Mendaro 4
- 11:30 Pilar 3 - Ikastola A
- 12:05 Ikastola B - Herri Eskola A



**1997.** urteko argazki honetan, begira zein diferente ageri den Madalako ingurunea! Argazkian ikusten den bezala, urte honetan hasi ziren Madalako etxebizitza berriak egiteko obrak. Ordura arte, lantegiz beteriko ingurunea zen hau: argazkiaren ezkerreko aldean Alkorta-ko ehundegi zaharra egon zeneko tokia ikusten dugu, ondoren trefilazio tailerra izan zen, eta geroago autoentzako doaneko garajeak izan ziren. Bere aurrean, argazkiaren eskuin aldean, "Alkorta y Compañía" izeneko tailerra ageri zaigu. Ingurune hau herriko industrigune garrantzitsua zen, eta jende askok egiten zuen lana bertako lantegietan.




**2004.** urteko argazki honetan berriz, zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Begira nolako etxebizitza ederrak egin dituzten Madalan! Argazkian ikusi ez arren, herriko kalerik zabalena bertan sortu da. Komertzio, eta taberna berriak ireki dituzte, eta mugimendu handiko kalea da. Auto asko pasatzen dira bertatik, eta jende ugari biltzen da astean zehar, eta baita asteburuetan ere. Ingurune hau zeharo garbituta dago gaur egun, tailer zaharrak bota zituztenetik askoz itxura txukunago dauka. Gaur egun, jende asko bizi da etxe berri hauetan, eta oraindik ere, etxe gehiago eraikitzeko obrak egiten ari dira.

Juanito Gorostiza

**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
  
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

**CORDON VILARCHAO**  
DEKORAZIOA  
Karpas eta barneko estaliturak  
Zaluen kokaketa  
Lakatuak: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra  
San Roke, 7 beheak  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku  
Tel. 943 740 578  
GRUPO REALEM

**Malape taberna**  
Orain astegunetan  
  
San Frantzisko, 60

# BARRREN

## elkarrizketa

ASTEKARIA

DUELA BOST URTE SORTU ZEN ELGOIBARKO NAGUSILAN ELKARTEA. IZENAK BERAK ADITZERA EMATEN DUEN MODUAN, NAGUSIEKIN LAN EGITEN DUEN ELKARTEA DA, ETA BERAIEEN HELBURUA, GAIXORIK DAUDEN NAGUSIEI LAGUNTZEA DA. BERAIEKIN HITZ EGIN, PASIATZERA ERAMAN... OROKORREAN APURTZO BAT ENTRETENITZEA. 20 LAGUNEK OSATZEN DUTE NAGUSILAN ELKARTEA, ETA AHAL DUTEN HEINEAN, BAKOITZAK BERE KONPROMISOAK ALDE BATERA UTZI GABE, GAIXOEI LAGUNTZEN DIETE. GAURKOAN ANTONIO BERASALUZE NAGUSILAN-EKO PRESIDENTEAREKIN HITZ EGIN DUGU. DUELA GUTXI HARTU DU BERE KARGU BERRIA, ETA BERAK KONTATU DIZKIGU ELKARTEAREN NONDIK NORAKO GUZTIAK.

*Antonio Berasaluze*

"NORBERA BAINO EGOERA OKERRAGOAN DAGOENARI LAGUNTZEA DA NAGUSILAN-EN HELBURUA"

ANTONIO BERASALUZE DUELA 71 URTE JAIO ZEN SAN MIGEL BAILARAKO ZELETA BASERRIAN. EZKONDU ZENEAN KALERA ETORRI ZEN BIZITZERA, BAINA ORAINDIK ERE SARRITAN JOATEN DA BASERRIRA. LAN DESBERDINETAN IBLITAKOA DA, ETA GAUR EGUN JUBILATUTA DAGO. HALA ERE, EZIN GELDIRIK EGON, ETA NAGUSILAN ELKARTEAN SARTU ZEN KOLABORATZAILE MODUAN. ZARATA HANDIEGIRIK ATERA GABE, LAN EDERRA EGITEN DUTE, ERABAT BORONDATEZKO LANA, ETA GAIXOEK IZUGARRI ESKERTZEN DUTE. ANTONIO BERASALUZEK ESAN DIGUNEZ, AHAL DUEN HEINEAN GAIXOEI LAGUNTZEN JARRAITUKO OMEN DU.



## Antonio Berasaluze

# “Lan polita egiten dugu”

### ► Noiztik ari zara Nagusilan elkartearen kolaboratzen?

1998. urtean hasi ginen lagun batzuk elkartu eta bilerak egiten. Gero formazio txiki bat jaso genuen, eta nagusiekin lanean 1999an hasi ginen.

### ► Zein motatako formazioa jaso zenuten?

Gaixoak nola zaindu behar diren ikasteko formazioa jaso genuen hasieran. Orain ere, urtean ikastaroren bat egiten dugu, Alzheimerri buruzkoa, edo beste gaixotasunen baten ingurukoa. Garrantzitsua da besteei lagundu ahal izateko, lehenengo norbera ere apur bat formatzea.

### ► Zein da Nagusilan-en helburua?

Norbera baino egoera okerragoan dagoenari laguntzea da helburua, berarekin egon, hitz egin, kalera atera pasiarra bat ematera...

### ► Nagusilan-eko boluntarioek soldatarik kobratzen al duzue?

Ez. Gure lana boluntarioa da. Argi daukagu gainera, gure helburua betetzeko beste pertsona batek bere soldata galtzen badu, gu soberan gaudela. Hau da, nagusiak zaintzeagatik dirua irabazten dutenei ez diegu konpetentziarik egin nahi.

### ► Nola finantzatzen da Nagusilan?

Nagusilan-ek ez dauka gastu handirik. Udalak diru laguntzak ematen dizkigu, eta lokal bat uzten digu bilerak egiteko.

### ► Orain Nagusilan-eko presidentea zara. Nola hartu duzu zure kargu berria?

Bueno, ez diot bestelako garrantziarik ematen. Orain arte Fernando Urbina zen presidentea, eta bera Donostiara bizitzera joan zenean, beste norbaitek hartu behar izan zuen honen ardura. Mari Tere Iraegi eta nire artean hartu dugu orain Nagusilanen zuzendaritza.


### ► Zertan aldatuko da zure lana aurrerantzean?

Ezertan ere ez, lehengo lan berbera egingo dut. Donostiako Nagusilan-ekoekin harremanetan jartzea, eta beste gestio txikiren batzuk egin beharko dira, baina biren artean banatzen dugunez, ez da batere lan zaila izango.

### ► Zenbat jendek osatzen du Nagusilan taldea?

20 boluntario inguru gaude gaur egun. Hasieran 8 edo 10 lagun hasi ginen, eta poliki-poliki gorantz goaz. 22 izatera ere iritsi gara!

# gu, eta gaixoeak izugarri eskertzen dute”



## “AHAL DUDAN BITARTEAN GAIXOEI LAGUNTZEN JARRAITUKO DUT”

### ► Zenbat denbora eskaintzen diozue lan honi?

Astean egun bat edo bi. Bakoitzak bere konpromisoak ditu, eta horiek albo batera utzi gabe moldatzen gara.

### ► Zertan laguntzen diezue gaixoei?

Gauza desberdinak egiten ditugu beraiekin. San Lazaro Egoitzan astean bi edo hiru aldiz bingoan jolasten dute, eta horretan laguntzen diegu askotan. Badaude zenbakiak ondo ikusten ez dituztenak, edo ondo entzuten ez dutenak, eta guk beraiekin jolasten dugu. Honetaz aparte, kalera atera eta beraiekin hitz egin eta noizean behin txangoren bat ere antolatzen dugu. Azkenekoz, Zarautzen izan ginen.

### ► Gustuko al dute kalera ateratzea?

Denetarik dago. Batzuei asko gustatzen zaie, eta zain egoten dira. Astean behin, San Lazaro Egoitzan egun libre izaten dute, ez dute inolako ekin-

tzarik izaten, eta egun hori aprobetxatzen dugu kalean zehar bueltatxo batekin. Emakumezkoek ostegun goizetan azokara ateratzea ere izugarri gustatzen zitzairen, baina orain ez dagoenez, ez gara ateratzen. Penatuta daude erabaki honekin. Beste batzuk ordea, ez dute kalera ateratzerik nahi, eta guk ez ditugu derrigortzen, beraiek gustura egotea nahi dugu.

### ► Zein motatako nagusiak zaintzen dituzue?

San Lazaro Egoitzan dauden gaixoak zaintzen ditugu. Gaixoen artean, hoberen daudenak zaintzen ditugu guk. Oso gaixorik daudenak, benetako profesionalek zaintzen dituzte, egoitzako erizainekin egoten dira. Gure lana ez da sendagilearen lana, entretenimendurako lagunak gara. Hala ere, gaixoei jarraipena egiten diegu, eta norbait Mendaroko Ospitalera eramaten badute, bisitak egitera ere joaten gara.

### ► San Lazaro Egoitzako gaixoak soilik zaintzen al dituzue?

Ez, etxean dauden hainbat gaixo ere, zaintzen ditugu. Udaletxeko Ongizate Sailak ezagutzen du gure lana, eta handik eskaria luzatzen badigute, zenbait etxetara ere joaten gara gaixoak zaintzera.

### ► Nola hartzen dute gaixoek zuen laguntza?

Oso ondo. Askotan gure zain egoten dira kalera ateratzeko, edo kontu kontuari aritzeko. Asko bakarrik daude, edo senideak ezin izaten dira egunero bisitan joan, eta gure konpainia izugarri eskertzen dute.

### ► Noiz arte jarraitzeko asmoa?

Ahal dudan bitartean gaixoei laguntzen jarraituko dut. Gustura nabil, be-



raiek ere eskertzen dute, eta lan polita da.

► **Honetaz aparte, jubilatutako aurretik beste lan batzutan arituko zinen, ezta?**

Bai, 50 urte nituenean lanik gabe gelditu nintzen, eta soldata nonbaitetik atera behar nuen. Erlojugile batekin lanean hasteko aukera suertatu zitzaidan, eta hartu egin nuen.

## "ASKOTAN JOATEN NAIZ ZELETARA ETA ERABAT ALDATUTA DAGO"

► **Zein zen zure lana?**

Nire lana autoa hartu eta bitxiak saltzea zen. Hasieran astean egun bakarra egiten nuen lan, eta gero egunero. Beldur handia pasatzen genuen hasieran. Maleta bitxiz beteta batekin agertuko ote zitzaigun beldur izaten ginen, baina sekula ez zitzaigun ezer gertatu.

► **Zenbat denbora aritu zinen lan honetan?**

10 urte inguru. Jubilatutako arte ibili nintzen erlojuak eta bitxiak saltzen.



*Antonio Berasaluze bere emaztearekin Alpeetako paraje batean.*

► **Denborak urrea balio al du?**

Baietz uste dut. Ahal den bitartean, denbora bizi egin behar da.

► **Zeleta baserrian jaiotakoa zara.**

**Zein oroitzapen dituzu?**

Oso oroitzapen onak dauzkat. Gaztaro polita izan nuen. 9 urte nituela gaitasun serio bat izan nuen, baina bestela, ondo pasatu nuen. Ez nuen gaurko gazteek daukaten guztia eduki, baina orokorrean, gaztaro ona izan nuen.


► **Noiz etorri zinen kalera bizitzera?**

Ezkundu nintzenean. Anaia eta biok batera ezkondu ginen, eta kalera etorri ginen.

► **Joaten al zara oraindik baserrira?**

Bai, eta zeharo aldatuta dago. Baserria erabat berri dute, ukiulu zaharra bakarrik mantentzen dela uste dut. Zeleta baserri berezia da gaur egun, eta negutegiaren asuntua honekin oso fformatua egin da. Gure gazte denboran, baserri arrunt bat zen.

besteen ahotan



**Mari Tere Iraegi** (Nagusilaneko kidea)

"Antonio Berasaluze kaletik betidanik ezagutzen dut. Nagusilan Elkartearen duela lau urte inguru hasi ginen lanean, eta oso gizon jatorra da, erderaz esaten dan bezela, "kaballerua". Bere lekuan egoten dakien gizona da, eta ingurukoeri bere lasaitasuna transmititzen die. Egin behar guztiak apuntatzen ditu, eta oso ordenatua da. Harremanetarako dohainak dauzka, eta gizon gozoa da. Orokorrean giro oso jatorra daukagu elkartearen, eta denok oso gustura gaude".





## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

22	Fernandez
23	Yudego
24	Yudego
25	Zabaleta
26	Etxeberria
	(Errosario kalean)
27	Ibañez
28	Bidasolo
29	Etxeberria
	(Santa Ana kalean)

### GAUEZ

Fernandez
Yudego
Yudego
Zabaleta
Etxeberria
Ibañez
Bidasolo
Etxeberria

### FARMAZIAK

<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
<b>OKINDEGIA</b> 24 igandea Idarraga

### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

## Eusko Tren

### DONOSTIA-BILBO

Egunero			
Donostia AMARA	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02...	22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira			

### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero		
Mendaro	07.50	08.50... 21.50

## Eusko Tren

AUTOBUSAK

### BILBO-DONOSTIA

Egunero			
Bilbo	06:00	7:00...	20:00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira			

### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan			
Elgoibar	07.25	08.25	10.25... 21.25
Jaiegunetan			
Elgoibar	08.25	09.25	10.25... 21.25

### ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

#### SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

#### ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

## URKO ABESLARIA

### “Duela 30 urte gizarte zirikatzaileak ginen, eta politikarien lekua ere hartzen genuen”

Josean Larrañaga “Urko” (Donostia, 1948) kantautore ezagunak “Hemen gaude!” bere azken diskoa aurkeztuko du gaur, hilak 22, Herriko Antzokian. Abeslariaren betiko kantak biltzen dituen emanaldia entzun ahal izango da. Duela 30 urte euskaraz abesten hasi zenetik disko askotan jasotzen dituen kanta ezagunak gogoraziko ditu, hala nola, “Agur Euskal Herriari”, “Ameriketara joan nintzen”, “Kaia barrenian”, “Peio Joxepe”, “Quisiera ser alcalde”, etab. Saioa 22:15ean hasiko da.



#### ■ Noiz eta nolatan hasi zinen musika munduan?

Txokolateagatik hasi nintzen abesten, *Chocolates Zahor* etxeak antolatutako lehiaketa batean parte hartu bainuen Donostian, 8 urte besterik ez nituela. Hamalau urterekin garai hartako rock & rol munduan sartzen hasi nintzen eta lagata egon ostean, berriz ekin nion abesteari 22 urterekin. Euskaraz abesten hasi nintzen orduan, eta 30 urte egin ditut euskal kantagintzan.

#### ■ Nolako zen orduko kantu giroa? Gaurkoarekin konparatzerik bai?

Zeharo desberdina zen. Garai hartan, duela 30 urte, gizarte zirikatzaileak ginen eta politikoen lekua hartzen genuen zenbaitzuetan. Egun, berriz, musikariak gara soilik. Orain lehen baino askatuago gaude.

#### ■ Noiz isildu zen Urko? Zergatik?

30 urtez euskaraz abesten jardun ostean, duela hiru urte laga nion abesteari guztiz. Oso nekatuta nengoelako batetik, eta bestetik, jendea ezer berririk esateko ez nuela konturatu nintzelako.

#### ■ Eta zergatik ekin diozu berriz kantatzeari?

1974tik 2001era nire ibilbide profesionaleko lan gutzia batzen duen

“Hemen gaude!” bilduma kaleratu genuen, 56 abesti guztira. Izugarritzko arrakasta izan du eta jendea deika hasi zitzaidan han eta hemendik. Hau ikusirik zerbait egin beharko genukeela pentsatu genuen. Jendeak hala nahi badu, ezer gehiago egiterik ez nuela nahi erantzutea harrokeria iruditzen zitzaidan, eta aurten dozena bat kontzertu eskaintzea erabaki nuen. Musikari eta profesional onenez inguratu naiz eta oso pozik hasi naiz berriz. Pentsa, hurrengo urterako ere kontzertu gehiago atera zaizkigu.

“Askok oraintxe deskubritu dute ‘guk euskaraz zuk zergatik ez’ abestiaren egilea”

#### ■ Zer eskainiko diguzu elgoibartarroi?

24 abesti. Guztira 12 disko ditut kaleratuak eta guztietako abestiak entzun ahal izango dituzue. Gehienek ezagutuko dituzten abestiak dira, partaidetza bultzatzen duten abestiak, gainera.

#### ■ Zelako jendea joango da zure kontzertura?

Denetarik, askok oraintxe deskubritu baitu “guk euskaraz, zuk zergatik ez” abestiaren egilea. Ni ezagutzen ez nauten bi belaunaldi daude eta bat-batean deskubritu naute, joño Urko batek existitzen du! diote.

#### ■ “Euskara putzu sakon eta ilun bat” al da oraindik ere?

Oraindik ere bai, baina bagoaz aurrera. Ni euskaldun berria naiz, 22 urterekin hasi nintzen euskara ikasten guk antolatutako Ikastola klandestinoetan. Pentsa zer ezberdintasun, non geunden eta non gauden, baina egiteko asko dago oraindik. Tinko eutsi behar zaio, pausu bat ere atzera egin gabe.

#### ■ Egin al dute bat zazpi Euskal Herriek?

Zaila izango da baina lortuko dugu. Momentuz nahikoa edukiko genuke 3 Euskal Herri batuta, gero lau eta gero ikusiko dugu. Pausoz pauso.

#### ■ "Zer eskatzen du herriak?"

Bakea. Bakea behar dugu alde guztietatik. Baikorra naiz eta poliki-poliki lortuko dugula uste dut. Hurrengo hauteskundeak oso garrantzitsuak izango dira. Aurrekoek PP boteretik botatzeko balio izan dute eta oraingoek beste gauza batzuk lortzeko balio beharko ligukete.

## Iñigo Ansola kantabriarrak irabazi du IX. Elgoibarko Komiki Lehiaketa

Gaur, hilak 22, izango da sari banaketa Kultur Etxean

**K**okoe Komiki Elkarteko epaimahaiak IX. Elgoibarko Komiki Lehiaketari dagozkion irabazleen izenak aditzera eman ditu. Laredoko Iñigo Ansolak merezi izan du lehen saria epaimahaiaren iritziz. Kantabriarrak “El Código Tapies” lanari esker irabazi ditu lehen sariari dagozkion 500 euroak. Ferran Clavero (Barcelona) eta Francisco Ruiz (Madrid) komikigileek eskuratu dute bigarren saria (300 euro) “Lidia y las canicas” lanagatik. Hirugarren saria (200 euro) Euskadin geratu da, Iagoba Molly bilbotarrak eskuratu baitu “Consecuencias espacio-temporales” lanari esker.

Euskarazko lanik onenari dagokion saria (120 euro), berriz, Jon Martin leioarrantzat izan da. Bizkaitarrak



“Azaloreburu doktorea eta sapaizmakine” lana aurkeztu zuen. Guztira 30 lan aurkeztu dira lehiaketara. Lan guztiak Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko

dira ikusgai gaurtik (urriak 22) urriaren 31ra bitartean. Sari banaketa ekitaldia ere gaur egingo da arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

## Laiotz Literatur Aldizkariaren 11. zenbakia kaleratu du Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek, Laiotz Literatur Aldizkariaren 11. zenbakia kaleratu du, iazko idazlehiaketako irabazleen lanekin. XVII. Prosa Lehiaketa eta XXII. Etxegiña Bertso-Paper lehiaketako irabazleen lanak biltzen ditu Laiotz aldizkariak. Guztira 7 pertsonen lanak aurki daitezke bertan: Garazi Aiesta, Nerea Aiesta, Mikel Arrieta, Ane Odria eta Amaia Gorrotxategi izan ziren maila bakoitzeko irabazleak. Bertso-paper lehiaketari dagokionez, Nora Hadiren eta Eneko Salegiren lanak izan dira aukeratuak. Saritutako lanez gain irabazleekin egindako elkarriketen ondorioa diren zertzeladak ere irakur daitezke liburuxka honetan. Laiotzak Elgoibarko ikastetxe guztietan banatuko dira LH 3tik LOGSE-ra bitarteko ikasleen artean (1.200 ale guztira). Dena dela, herriko literato eta



bertsozale gazte hauen lanak irakurri nahi dituen orok Elgoibarko Izarra Elkartearen eskuratu ahal izango du ale bat.

## Bost filmeko ziklo berri batekin hasiko da Zine Klubaren denboraldi berria

Ongarri Zine Klubak azaroan hasiko du ekainera arte iraungo duen denboraldi berria. Bost filmeko ziklo batekin emango diote hasiera ikasurte berriari. Lehen filma urriaren 28an ikusi ahal izango da Herriko Antzokian. Aukeraturiko pelikula Felipe Vega espainiarraren “Nubes de Verano” da. Ohi bezala filme guztiak ostegunetan eskainiko dituzte 22:15etik aurrera.

### Urriak 28:

“Nubes de verano” (Felipe Vega)

### Azaroak 4:

“Cinco condiciones de Lars Von Trier”, (Lars Von Trier)

### Azaroak 11:

“Zatoichi” (Takeshi Kitano)

### Azaroak 18:

“El señor Ibrahim y las flores del coran” (F. Dupeyron)

### Azaroak 25:

“Swing” (T. Galtif)

## Ramon Javier Garciak irabazi zuen San Pedrora txirrindulari igoera

64 txirrindularik parte hartu zuten lasterketan



**E**rrekoretik 15 segundora geratu zen Ramon Javier Garcia txirrindulari elgoibartarra Julian San Juanen oroimenez Lagun Taldeak urtero antolatzen duen San Pedrora txirrindulari igoeran. Azysa-Swell Kider afizionatu mailako taldeko kidea da elgoibartarra eta gainontzeko txirrindulariak baino maila bat gorago dagoela egiaztatu zuen San Pedroko aldapa gogorretan. Uneoro kontrolpean izan zituen arerioak eta hasieratik buruan joan ostean, 13:36 denborarekin zeharkatu

zuen helmuga. Bigarren postuan, berriz, Jorge Gonzalez sailkatu zen. Santa Klarako bizilaguna irabazlearengandik 42 segundora iritsi zen. Helmugaratzen hirugarrena Jose Mari Fernandez (14:48) beteteranoa izan zen, Iñigo Ortuoste (14:57) sailkatu zen laugarren postuan eta Karlos Lehr (15:25) bosgarren. Hortaz, lehen bost sailkatuak elgoibartarrak izan ziren. Guztira 64 txirrindularik parte hartu zuten, tartean emakume bakarra: Gotzone Aierdi (30:29) elgoibartarra. Azkenik, lehen gaztea Mario Romero izan zen (17:46).

## Bittor Astigarraga azkoitiarra nagusi Aiastiako Bolo Txapelketan

Aiastiako (San Migel) bolatokian jokatu zen Euskadiko XV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren bigarren jardunaldia. Bertan, 74 bolarik parte hartu zuten eta Asola Berri taldeko Bittor Astigarraga azkoitiarra izan zen onena, 5 txirlo bota ostean. Txurruka taldeko Jose Antonio Nuñez sailkatu zen bigarren postuan 4 txirlorekin. Ondoren sanmigeldarrentzat izan ziren ohorezko postu guztiak, denak ere lau txirlo botata. Agustin Irusta sailkatu zen hirugarren postuan, Iñaki Ariznabarreta laugarren postuan, Unai Loiola bosgarren eta azkenik, Jose Irusta seigarren postuan.



## Ibai Lopez bergararra bigarren urtez jarraian nagusitu da Dirtsurf txapelketan

Gravity-bike eta Golfo3 kirolen erakustaldiak egin ziren

Azkarateko errepide zaharreko aldapa Amalkartsuak kirol berritzaileen eszenatokia izan ziren joan zen Pilarreko zubian. Devilsurf.com txapelketaren hirugarren edizioa jokatu zen bertan eta dirtsurf proban bergararako kirolariak izan ziren jaun eta jabe. Partaideguztiek erlojuz kontrako bi jaitsiera egin zituzten. Iaz gertatu zen moduan Ibai Lopez bergararrak irabazi zuen proba, nahiz eta bigarren sailkatuari, Joseba Erick de Gauna herrikideari, segundo bakarreko aldea atera zion. Lopezek 10 minutu 9 segundo eta 4 dezima behar izan zituen eta Josebak, berriz, 10 minutu 10 segundo eta 55 dezima.

Aurten beste bi kirol berri aurkeztu zituzten antolatzaileek. Batetik, Gravity-bike txapelketa izan zen. Bizikleten antza duten tramankulu hauek grabitatearen indarra aprobetxatuz jaisten dira aldapan behera eta



izugarriko abiadura har dezakete, batzuek orduko 80 kilometro hartzera iritsi ziren. Calixto Garcia valentziarra izan zen bizkorrena, 4 minutu, 44 segundo eta 24 dezima behar izan baitzituen 5 kilometroak jaisteko. Azkenik Golfo3 deritzon kirolaren erakustaldia izan zen. Goitibehera antzerako hauetan buruz behera etzanda jaisten dira parte hartzaileak. Francisco Cudero madrildarrak irabazi zuen proba.

## Bi garaipen eta postu onak Mintxeta Atletismo taldearentzat

Mintxeta Atletismo Taldeko neska-mutilek Jose Merinoren omenezko atletismo proban parte hartu zuten Ermuan. Primeran aritu ziren atleta gazteak eta garaipen eta postu onak lortuta itzuli ziren etxera. Mutilen alebin mailan esaterako, Borja Diezek irabazi zuen lasterketa eta kadete mailan ere Arkaitz Azkoitia izan zen bizkorrena. Miriam Goy eta Naia Menbrillera ere garaipenetik gertu geratu ziren, hirugarren postuan sailkatu baitziren infantil eta alebin mailetan. Angel Lopezek ere brontzeko domina eskuratu



zuen infantil mutilen mailan. Nesken benjamin mailan ere postu bera lortu zuen Ainhoa Etxeberriak.

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 2 – Amorebieta 0 (3. maila)  
Amaikak Bat 1 – Elgoibar 0 (1. erreg.)  
Barakaldo 2 – Elgoibar 0 (Jub.)  
Antiguoko 7 – Elgoibar 1 (Inf. A)  
Eibar 3 – Elgoibar 3 (Inf. B)  
Urola 3 – Elgoibar 4 (Neskak F-8)

### Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa  
Lagunak 22 – Añorga B 15 (Jub.)  
Lagunak 22 – Bergara 15 (Nag.)  
Txapagain 17 – Lagunak 22 (Jub.)  
Gure Txeru 22 – Lagunak 20 (Nag.)

### Areto Futbola

Kenci Elg. 1 – Beti Arin 2 (Nazional B)  
Ituriondo Pinturas Izkara 8 – Kenci 3 (Naz. B)  
Lanbroa 2 – Bilkoin Legorreta 2 (1. maila)  
Teletxe Kafetegia 7 – Idiazabal 2 (Jub.)

### Eskubaloia

Pagoaga Sanlo 10 – Kukullaga 36 (Kad. nesk.)  
Cometel Sanlo 15 – Kukullaga 15 (Jub. nesk.)  
Tecnomeca Sanlo 26 – J.D. Arrate 25 (Kad. mut.)  
Eibar Haritza 19 – Antt Sanlo 22 (Sen. mut.)  
Egia 24 – Tecnifuelle Sanlo 27 (Sen mut.)

## AGENDA

### Eskubalola, Kiroldegian

Zapatua, 23  
17:30 Pneumax Sanlo – Hondarribia (Jub. mt.)  
19:00 Antt Sanlo – Donibane (Sen. mut.)  
Domekia, 24  
10:30 Tecnifuelle Sanlo – Ereintza (Sen mut.)

### Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 23  
16:00 Kenci Elg. – Aстикotz (Nazional B)

### Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 22  
21:30 Lagunak – Aurrera Zayaz (Jub.)  
22:15 Lagunak – Zazpi Iturri (Jub.)  
23:00 Lagunak – Oiarpe (Nag.)  
Zapatua, 23  
16:30 Lagunak – Bergara (Kad.)  
17:15 Lagunak – Hernani (Jub. nesk. Palaz)



ARRATE GARATE ZENDOIA

*"Umoretsua zinen guztien gaintik, borondatea ere ez zeneukan faltik nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez dezu aldegingo gure bihotzetik."*

(Zure etxeokak)

### II. URTEURRENA

URTEURRENEKO MEZA izango da San Bartolome parrokian larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan.





**Langai**  
Euskal Lan Zerbitzua

Eibarko enpresak **kamioi txoferra** behar du. **Erref. 162004008888**

Arrasateko enpresak **kirol artikuluen saltzailea** behar du. **Erref. 162004008350**

Zumaiako enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162004008813**

Gipuzkoako enpresak **torneroa** behar du. **Erref. 162004008753**

Arrasateko enpresak **ingeles irakaslea** behar du. **Erref. 162004008535**

Soraluzeko enpresak **torneroa** behar du. **Erref. 162004008309**

Oñatiko enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004008450**

Mendaroko enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162004008691**

Eibarko enpresak **igeltsero** behar du. **Erref. 162004008601**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo "Langai"-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. **☎ 626 91 49 04**

◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Egunez eta gauetz. Esperientzia. **☎ 677 09 70 15 (M<sup>a</sup> Carmen)**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuak barne. **☎ 660 91 94 23**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 639 88 20 04**

◆ Neska administrari lanetarako prest. **☎ 655 70 70 33 (Leire)**

◆ Kamarero, sukaldari laguntzaile edo igeltsero peoi lanetarako prest. **☎ 678 840 531**

◆ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Igandeak barne. Esperientzia daukat. **☎ 943 17 28 96 (Mertxe)**

◆ Neska dependienta lanetarako prest. **☎ 943 17 28 96 (Mertxe)**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, baserri lanak, edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 676 38 22 23 / 943 53 19 87**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo kamarera lanetarako (esperientzia) edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 660 92 75 66**

◆ Emakumea edozein lanetarako prest. Arratsalde. **☎ 660 91 94 23**

### ESKAINITZA

◆ Goxoki dendarako neska edo emakumea behar da. **☎ 675 70 81 33**

◆ Asteburuetan gozotegian lan egiteko neska edo emakumea behar da. **☎ 943 75 50 20 / 656 73 28 20**

◆ Taberna jatetxerako asteburuetarako kamarera behar da. **☎ 635 75 16 42**

◆ Jatetxerako sukaldaria behar da. **☎ 652 77 82 10**

◆ Esperientziadun kamareroa behar da jatetxerako. Zapatu arratsalde, domeka eta jaiegunetan libre. **☎ 636 01 57 07 (Izaskun)**

◆ Kafetegirako kamareroak behar dira. **☎ 617 69 11 31**

◆ Jatetxerako kamareroa behar da. **☎ 943 12 12 62**

◆ Kamarero lanak eta pintxoak egingo dituen pertsona behar da. Zapatuetan (16:00-21:00), igandetan (11:00-14:00). **☎ 696 06 06 18**

◆ Asteburuetan taberna garbitzeko emakumea behar da. **☎ 670 25 04 29**

◆ Asteazken zehar lan egiteko kamareroa behar da. **☎ 665 850 425**

◆ Jantoki eta barrarako kamareroa behar da. **☎ 943 76 48 63**

## Lokalak

◆ San Bartolome kalean lokala alokairuan. Ez du obra beharrik. **☎ 667 94 24 33 (gauetz)**

◆ Madalako etxeen azpian 5,5m<sup>2</sup>ko trasteroa alokatzen da. **☎ 605 77 34 53**

### OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Etxebizitzak

◆ Pisu txikia edo buardila hartuko nuke alokairuan, edo etxea konpartituko nuke. **☎ 677 09 70 15 (Mari Carmen)**

◆ Etxea salgai Arregitorren. 4. pisua. 3 logela, egongela, bainua, komuna, sukaldia eta ganbara. Garajea erosteko aukera. **☎ 943 74 09 57**

◆ Etxea salgai Mendaron. Berria, altzariekin. 3 logela, sukaldia-egongela, komuna eta trastero handia. **☎ 609 96 53 95 / 650 12 96 05**

◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora. Prezioa adosteko. Aukera paregabea. **☎ 625 26 09 39 / 943 75 62 05**

◆ Pisu alokatzen da Urasandin. Eguzkitsua. **☎ 615 70 68 72**

◆ Gasteizen pisua osatzeko pertsona behar da. Gauetz deitu edo mezua laga. **☎ 945 27 42 83**

◆ Etxea salgai Urasandin. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, bainugela, komuna eta ganbara. 83m<sup>2</sup>. 20m<sup>2</sup>ko garajea aukeran. **☎ 943 53 02 02**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta despensa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**

◆ Pisu hartuko nuke alokairuan. **☎ 678 840 531**

◆ Bi logelako apartamentua hartuko genuke alokairuan. **☎ 679 819 314 (Amaia)**

◆ Soraluzen etxe berrieta salgai. **☎ 615 77 99 20**

◆ Logela bat alokatzen da. **☎ 943 74 18 81**

◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Garajea eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. **☎ 686 045 321 / 943 74 15 21**

◆ Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **☎ 615 17 73 62 (Juan)**

◆ Apartamentua eta lonja salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezinhobea. **☎ 639 47 47 39 (Manolo)**

◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta despensa. Berogailu zentrala. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 699 179 872 / 943 74 02 68**

## Salerosketak

◆ Opel Astra TDI familiarra salgai. SS-BJ **☎ 629 63 52 03**

◆ Ospitalerako moduko ohe artikulatua salgai. Ia berria. **☎ 943 74 14 55**

◆ HP ordenagailua salgai. Monitorea, teklatura, arratoia, eskanerra, CPU eta inpresora. 500.000 ptan baloratua. 1800 euroren truke. **☎ 686 22 84 04**

◆ Opel Vectra 2.0i gasolina, 147 zaldia, salgai. Egoera oso onean. 4 urte. Km gutxi. **☎ 665 731 879**

◆ Seat Toledo Sport 2.0 cv salgai. SS-AN. 170.000 km. Oso egoera onean, merke. **☎ 617 71 91 21**

◆ Altzariak salgai. Oso merke. **☎ 620 07 38 93**

◆ Toshiba Satellite A40-201 ordenagailu portatila salgai. Berria, estreinatua gabea. Eskaintza oso ona. Pentium IV 2.8 GHz. 512 Mb RAM. CD-RW eta DVD. 1000 euro. **☎ 943 74 14 48**

◆ Gitarrantzako pedaleko salgai. Zoom 606. **☎ 943 74 32 94**

◆ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. Egoera onean. **☎ 943 74 11 30 / 652 77 11 94**

## Garajeak

◆ Garajea salgai Pedro Muguruzan. **☎ 645 72 79 11 / 943 74 41 85**

◆ Garaje itxia alokairuan ikastola ondoan. **☎ 943 53 16 48**

◆ Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. **☎ 655 71 20 21**

◆ Bi pisutako garajea salgai Urasandin. Anayak ondoan. 16m<sup>2</sup>. **☎ 943 74 09 80 / 636 20 51 89**

◆ Garajea salgai Pista Beltzean. **☎ 943 74 07 57 (Arantza)**

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. **☎ 943 74 08 63** (20:00etatik aurrera)

◆ Garaje itxia salgai Madalatik gertu. **☎ 943 74 24 06**

## Bestelakoak

◆ Urte eta erdiko artzai txakurra oparitzen da, zaindu ezinagatik. **☎ 677 09 70 15**

◆ Karitasek arropa garbigailua, sukaldia, hozkailua eta butanozko berogailua behar ditu. **☎ 943 74 15 09**

◆ Txamarra beltz luzea galdu da. Bizkarraldean galdera ikur bat dauka. Balore sentimentalak du. **☎ 660 02 79 76**

◆ Taberna alokatu edo saltzen da Elgoibar erdialdean. **☎ 656 72 44 01**

◆ Katu persa galdu da, zuria eta grisa. Saritu egingo da. **☎ 943 74 14 60 (Vanesa)**

## Partikularrak

◆ Administraritzak eta enpresa zuzenbideko 2 edo 3 ikaslek matematika klaseak hartuko lituzkete **☎ 649 39 36**

# agurrak



**Elgoibarko Gazte Informazio Gunea**  
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)  
Tel. 943 741 461

Ordutegia:  
Asteartetik-ostiralera: 16:30-20:00

♦ Zorionak **Maria Reyes**, gaur zure eguna delako. Etxekoan eta bereziki, Eider eta Ionan partez.



♦ Zorionak **Ainarri**, hilaren 17an, 8 urte bete zituelako. Etxekoan partez.

♦ Zorionak **Mariari**, hilaren 15ean, 4 urte egin zituelako. Guraso eta ahizpa Sararen partez.

♦ Zorionak **Mikel**, 7 urte bete zituelako. Familiakoan, eta bereziki, Josu eta Leireren partez.

♦ Zorionak **Kristina**, gaur, hilak 22, 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat denon partez.



♦ Zorionak **Maria Castro**, hilaren 18an, lau urte egin zituelako. Anaia Julen eta familiakoan partez.

♦ Zorionak **Maitane Galastegi**, 16an, 6 urte egin zituelako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Maialenen partez.

♦ Zorionak **Macarena Patricia**, datorren igandean bataiatuko delako. Gurasoen eta aitamabixien partez.

♦ Zein ote da 18an, 28 urte bete zitxuan hau? Zorionak **Fran!** Miren, Mari Carmen eta Xabierren partez.



♦ Zorionak **Aitor**, urriaren 28an, 7 urte beteko dituzulako. Familiakoan partez.

♦ Zorionak **Nahia**, hilaren 20an, 3 urte egin zituelako. Familiakoan eta bereziki, anaia Daneleen partez.

♦ Gure printzesa **Amairi** zorionak, hilaren 20an 7 urte egin zituelako. Guraso, aitona-amoneta lehengusu Eñauten partez.

♦ Zorionak **Garazi Kalzakortari**, gaur, hilak 22, 8 urte egin dituelako. Ondo pasa. Gurasoen eta ahizparen partez.



♦ Zorionak **Markel**, hilaren 15ean, 3 urte bete zituelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Ibairen partez.

♦ Zorionak gure bihurri txikiarentzat, **Maialen**, 19an, 5 urte egin zituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.

♦ Zorionak **Abdel**, hilaren 24an, 6 urte egingo dituzulako. Guraso, aitona-amoneta etzabaren partez.

♦ Zorionak **amama**, hilaren 25ean, 65 urte egingo dituzulako. Kepa, Beñat, Elorri, Nerea eta etxekoan partez.



♦ Zorionak **Nora**, urriaren 18an, 6 urte bete zituelako. Familiakoan partez.

♦ Zorionak **Leire Galindo**, 7an, 5 urte egin zituelako. Guraso, aitxita, amama eta bereziki, ahizpa Aneren partez.

♦ Zorionak **Unai**, astelehenean bi urte egin zituelako. Patxo handi bat Oier eta etxeko guztien partez.

♦ Zorionak **Andoni**, gaur, hilak 22, 15 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.



♦ Gogoratzen zera egun honetaz? Zelan pasa dira urriak! Oin 26 eta 19 urtiak bete berri! Zorionak **Maider** eta **Maiteri** familiakoan partez.



♦ Zorionak **Paul** eta **Daniel**, hilaren 19an eta 28an, zuen eguna delako. Gurasoen eta familiakoan partez.

## BEKAK

### Enpresa arloan sartzeko bekak

SEPI Fundazioak "Enpresan Sartzeko 2004ko Programa"ren bitartez 250 beka emateko deialdia egin du, unibertsitate titulua izanik oraindik lan-espereziarik ez duten gazteei enpresa-munduan praktikak egiteko aukera eskaintzeko xedez. Baldintzak: unibertsitateko titulu bat izatea, 1974ko urriaren 31 baino lehen jaiotakoa ez izatea eta bere titulazioarekin erlazioanaturako inolako lanik eginga ez izatea. Epea: urriak 31

## LEHIAKETAK

### Film laburrak

"Calle 13" izeneko film laburren lehiaketa. Hiru kategoria: Fikzioa, Bideoklipa, 3' fikzioa. Lanek ez dute 20 minututik gorako iraupenik izango Fikzioaren kategorian, 5 minutuko Bideokliparen kategorian eta 3 minutuko 3' fikzioaren kategorian. Lan finalistak eta sarituak zinema-aretoetan proiektatuko dira, Cinemad04 delakoan. [www.festimad.es/cinemad04/html/cortos.html](http://www.festimad.es/cinemad04/html/cortos.html) Epea: urriak 31

## IKASTAROAK

### Geriatrico laguntzaile ikastaroa

Donostiako Emakumea Elkarteak geriatrico laguntzaile ikastaroa antolatuko du. Ikastaroa 250 orduko izango da, 2004ko azaroak 3tik 29ra, 16:00etatik 20:00etara, Donostian. Izena emateko epea: urriak 27

### Grafologia

Arrasateko Gazteentzako Informazio Bulegoak grafologia ikastaroa antolatuko du. Irakaslea Irune Ibarra izango da eta eskolak azaroaren 3tik 24ra, asteazkenetan 18:00etatik 20:30era izango dira Arrasaten. Matrikula 10 euro. Epea: plazak agortu arte

### Idazle Eskola

Euskal Idazleen Elkarteak, Bergarako UNED eta Asmoz Fundazioak, idazketa literarioa eta idazketa profesionala lantzen dituen graduondokoa antolatuko dute. Hartzaileak lizentziatuak, diplomatuak, edota lan-baldintzak direla medio idazketa lanean aritu direnak izango dira. Iraupena 300 orduko izango da, ikastordu presentzialak eta telematikoko tartekatuz. Ikastordu presentzialak larunbatetan izango dira, goizeko 9etatik 13:30 era, Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuan. Informazio gehiagorako: [www.idazleak.org/ieskola](http://www.idazleak.org/ieskola)

## LANA

### Administrari laguntzaileak


Zarauzko Udalan 6 administrari laguntzaile lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskola-graduatu, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokide bat eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: azaroak 2

## 22 BARIXAKUA

19:00 KOKOE KOMIKI  
LEHIAKETAKO LANEN  
ERAKUSKETA

Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Urriaren 31a arte  
Antolatzailea: Kokoe Komiki Elkarte

22:15 "URKO"REN KONTZERTUA  
Herriko Antzokian



## 24 DOMEKIA

16:30 ANTZERKI MUSIKALA  
Izenburua: "Ane Monna Oskola eta  
Karramarroi"

Taldea: Zenbat gara elkarte  
3-9 urte arteko umeei zuzendua  
Herriko Antzokian

## 29 BARIXAKUA

22:00 BIDEO FORUM-A

Izenburua: "El Jardín de la alegría"  
Hizlaria: Eskarne Larrinaga  
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



## IKASTAROAK

**Euskal Dantza ikastaroak  
nagusientzako**

Inazio Bereziartua Musika Eskolak Euskal Dantza ikastaroa antolatu du Haritz E.D.T.ren laguntzaz. Bi talde egingo dituzte. Lehena astelehen eta ostegunetan arituko da 21:30etik 22.30era. Bigarren taldea, berriz, zapatuetan 10:30etik 12.30era. Euskal Dantzak irakatsiko dira, Fandangoa eta Arin-arina bereziki. Izena emateko deitu Musika Eskolara arratsaldetan. Telefonoa: 943 74 21 45.

**Igeriketa ikastaroak**

Udal Kirol Patronatuak haur eta helduentzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Azaroaren 2an, martitzenean, hasiko dira klaseak (12 saio) Olaizaga kiroldegian, eta urriaren 26tik 29ra bitartean eman ahal izango da izena kiroldegian bertan.

Dantza Modernoa

Udal Kirol Patronatuak dantza modernoan ikastaroa antolatu du. Azaroaren 3tik aurrera hainbat dantza moderno ikasi ahal izango dira Olaizaga kiroldegian. Bertan egin daiteke izenematea (943 74 44 15).

ZINE  
kluba



## "Nubes de verano"

Zuzendaria: Felipe Vega.

Antzezleak: Roberto Enriquez, Natalia Millán, David Selvas.

Daniel eta Ana senar-emazteak dira eta azken lau urteetan mediterraneo kostaldeko herrirka batean pasa dituzte udako oporrak. Robert, berriz, bertan bizi den mutil gazte liraina da. Robert Anaz maiteminduko da eta bera seduzitzen ahaleginduko da. Gauzak gehiago nahasteko, bere lehengusinari senarrarekin, Danielekin ahalegintzeko eskatuko dio. Hasieran udako amodio bat zirudienak ondorio sakonagoak izango ditu.



## IKUSKIZUNAK

### Sebastopoleko Titiriteroak Mendaron

Zapatu honetan, urriaren 23an, Trixixapo 2004 programarekin jarraituz, In Leike Begirale Taldeak antolatuta Sebastopoleko Titiriteroek emanaldia eskainiko dute Mendaroko Goñati pilotalekuan eta herriko enparantzan arratsaldeko 16:30etik aurrera. Arratsalde bikain bat pasa nahi duen edonork bertara hurbiltzea besterik ez du.

## LEHIAKETAK

### Kartela aukeratzeko lehiaketa

2005eko Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen IV. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa abian da. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatzen duen lehiaketan honako testua agertu beharko da kartelean: Instrumentu Taldeen IV Lehiaketa "Elgoibarko Herria" IV Concurso Conjunto Instrumental. Martxoak 12/13 2005 12/13 Marzo. Originalak helbide honetara bidali beharko dira: Inazio Bereziartua Musika Eskola (Aita Agirrerren Plaza 4, 20870 Elgoibar, telefonoa 943 74 21 45). Entregatzeko azken eguna 2004ko azaroaren 5a. Oinarri eta informazio gehiago Inazio Bereziartua Musika Eskolan.

## AZOKAK

### Ezkontza Azoka Eibar 2004

Ezkontza Azoka 2004 ospatuko da asteburu honetan, hilaren 23an eta 24an, Eibarren. Herri ezberdinetako kalitatezko 23 firmak osatuko dute erakusketa: bitxitegi, jatetxe, argazki denda, bidai agentzia, luxuzko autoak, dj-ak, e.a. Besteak beste, profesionalen erakusketa deskontuekin, ezkontza opilen dastatzea, desfilea, areto dantza eta lirika ikuskizunak izango dira. Zapatuan gainera, Vanessa Goikoetxea sopranoak ezkontzetan abesten diren obrak abestuko ditu. Hau guztia Armeria Eskolako instalazioetan (Kantoi gasolindegi parean). Ez da sarrerarik ordaindu behar izango eta ordutegiari dagokionez, zapatuan 17:00etatik 21:00etara eta domekan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da ikusgai. Igandean, festa amaiera gisa opari ederren zozketa egingo da agertu diren bikoteen artean. Besteak beste, Santo Domingora (Dominikar Errepublika) bidai bat eta aste bukaerak bainuetxeetan zozketatiko dira.

## TAILERRAK

### Tailer ezberdinak Mendaron

Mendaroko Udalak marrazkia eta pintura eta eskulanak eta dekorazioa landuko dituzten bi tailer eskainiko ditu. Marrazki eta pintura tailerra astelehenero izango da 18:30etik 20:00etara. Eskulan eta dekorazio tailerra, berriz, asteartero izango da 18:30etik 20:00etara. Informazio gehiago Mendaroko Udalean. (943 03 32 82).



### ELGOIBAR, Herriko Antzokian "Fahrenheit 9/11"

23, zapatua: 19:30-22:15  
24, domekia: 19:30-22:15  
25, astelehena: 22:15  
"Nubes de verano" (Z.K.)  
28, eguena: 22:15

### EIBAR, Unzaga "Hellboy"

22, barixakua: 19:30  
23, zapatua: 17:00-19:30  
24, domekia: 17:00-19:30  
25, astelehena: 19:30  
26, martitzena: 19:30  
27, eguaztena: 19:30  
"Tiovivo 1950"  
22, barixakua: 22:15  
23, zapatua: 22:30  
24, domekia: 22:30  
25, astelehena: 22:15  
26, martitzena: 22:15  
27, eguaztena: 22:15

### EIBAR, Rialto "El diario de Noa"

22, barixakua: 19:30-22:15  
23, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
24, domekia: 17:00-19:30-22:30  
25, astelehena: 19:30-22:15  
26, martitzena: 19:30-22:15  
27, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Fahrenheit 9/11"

Zuzendaria: Michael Moore.

Antzezleak: Michael Moore, George Bush, Saddam Hussein.

2000. urtean George W. Bush Ameriketako Estatu Batuetako etxe Zurira eraman zuten hauteskunde istilutsuak hartu ditu abiapuntutzat Michael Moore zinegileak. Texaseko erdipurdiko petroleo gizon izatetik munduko herrialderik boteretsueneko presidente izatera iritsi zen gizonaren ibilbidea jarraitu eta aztertzen du. Baita bere aita eta Osama Bin Ladenen familiaren artean dauden erlazio ilunak argitaratu ekarri ere. Bushen gidatutako gobernuak Dorre Bikien aurkako eraso onura politikoak ateratzeko erabili izana ere salatzen du dokumental honek.

# ZINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1943. urtean Urkiolan ateratako argazkia da. Argazkian agertzen direnak koadrila berekoak ez diren arren, egun honetan mendi buelta bat egiteko elkartu ziren. Urkiola inguruko mendietan pasatu zuten eguna, bertan bazkaldu eta arratsaldean etxera itzuli ziren. Mendirako zaletasun handia zeukaten denek, eta sarritan egiten zituzten mendi irteerak. Gogora ditzagun zein diren mendizale hauek.

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Basilio Igartua** (†), **Gillermo Garmendia** (†), **Jose Mari Ansola**, **Jose Luis Ajubita** eta **Ramon Maiztegi**.

Behoko ilaran, makurtuta, ezkerretik eskumara: **Manolo Arregi** (†), **Federiko Azkue** (†), **Pako Iriondo** (Euskalnafar Federazioko Lehendakari ohia) eta **Julian Azkue** (†).



## ESKERTZA

2004ko urriaren 11n, 71 urte zituela hil zen,  
**BENITO TXURRUKA ZUBIAURRE**ren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2004ko urriaren 11n, 87 urte zituela hil zen,  
**JOSEFA UNANUE AZPIAZU** (Manuel Osoro  
"Kurutzalei"ren alarguna)-ren seme-alabak, bilobak eta  
gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako  
doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK  
APARTAMENDUAK  
DUPLEXAK  
LORATEGIDUN DUPLEXAK  
GARAJEAK  
MERKATARITZA LOKALAK



MAALA  
BIZIGUNEA



Salmenta bulegoa:  
Bernardo Ezenarro, 2

 **943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO  
PROMOZIOAK, A.I.E.**

## AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador  
*Santa Clara*

**Neinor** 

NEINOR **Azkoitia**  
Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta  
4 logelako duplexak behelalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua  
hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

# LOJANTZI

Aurpegi berriak  
**Lojantzi-n**

*Zatoz gu ezagutzera!*

**Pintxotan**  
aukera zabala



P. Muguruza, 7  
Tel: 943 74 16 76